

Gernika 2007, edo Euskal Testigantzen Krisia

Joseba Zulaika

Euskaldunok historia garaikidean izan dugun une erabakiorrena Gernikan gertatu zen orain hirurogeitamar urte. Faszismoaren biktima tragikoak izan ginen eta munduak halaxe ikusi zuen, George Steer eta beste zenbait kazetarien idatziei esker. Baina azken hamarkadetan euskaldunok berri bihurtzen garenean, geu gara borreroak, ez biktimak. Aldaketa honen garrantzia erabakiorra da euskaldunok mundu mediatiko globalean dugun esanahia aztertzeko orduan. Gernikaren zentzu erromantiko eta tragiko hura memorian gelditu da; gaurko euskal errealitate politikoa ETAk kapitalizatzen du munduaren begietan. Krimen militarraren biktimak izatetik krimenaren egile izatera pasa gara munduaren begietan.

Herri bezala, hemen Gernikan, euskaldunoi testigantza dagokigu faszismoaren aurka. Krimenaren historia europear modernoak Gernikan dauka ikur berezia; euskaldunon izenean, munduak «ez» esan zion basakeria militarri 1937ko Apirilaren 26an gertatukoa jakin ondoren. Euskaldun biktima zibilak izan ziren nazismoaren aurkako lehen lekukoak betirako. Baina euskal lekukotasun horrek munduaren aurrean porrot egin du, euskal aberriaren izenean krimena bera tresna politiko bezala hartu baitu. Gernikaren esanahia ez da jada bakarrik faszismo europearraren lekuko izatea; dagoeneko Gernika da baita ere euskal testigantzen krisiaren lekuko nagusia.

Picassok margotu zuen bonbardaketaren aurretik ere, ordea, Gernikak bazuen bere esanahi berezia euskaldunon historia txikian, eta esanahi honi itsatsia zegoen tragedia. Gernikak ordezkutzen zituen Erdi Harotik omen zetozen hainbeste lege,

ohitura eta memoria historiko. Zuzenbide politikoan oinarritzen zen Gernikaren herentzia. Euskal Herritik kanpo ere errekonozitzen zen ondare hau. Adibidez, Estatu Batuetako bigarren lehendakaria izen zen John Adams-ek, bere nazioarentzat “demokrazia federal” bat proposatzen zuelarik, konstituzioa idatzi aurretik 1787 urtean argitaratu zuen obran, Bizkaiaren tradizioa demokratikoa goraiatu zuen: “herri harrigarri honek bere aspaldiko hizkuntza gorde du, bere izaera, legeak, gobernuak, eta ohiturak, berrikuntza gabe, Europako beste edozein nazio baino luzeagoan”.¹

Tragediaren aurrez, beraz, diskurtso erromantikoan giroturik zegoen Gernika. Gure Iparragirreraren “Guernicaco Arbola” zerbaitegatik da euskaldunon ereserki zibila. William Wordsworth poeta erromantiko britainiarrak ere idatzi zion “Gernikako Haritzari”, azken hitzak hauetxek: “Zure adarrak... Bizkaiako askatasun aintzinakoaren zaindaria”. Eta Jean-Jacques Rousseau berak idatzia da: “Gernikak du munduko jenderik zoriontsuena, beren eguneroko gauzak haritz baten menpean baserritar kontseilu batek erabakitzen dituelarik, eta beti zuhur jokatuz.”

Bi mende beranduago, Hitlerrek Gernika bonbardatu zuten pilotuei ongi etorria ematean, esango zuen: “Espainian egin zenuten burruka lezio bat izan da gure arerioentzat”. Eta Churchillek erantsiko zuen: “Gernika orrore esperimentalak izan zen.”

Laburbilduz, bai erromantizismoan eta bai tragedian, badirudi Gernika esperimentu bat izan dela beti. Euskaldunon zoriona izan, edo euskaldunon izua eta ikara, badirudi neurri batean gure izaeraren definizio eta edukia euskaldun ez direnen ikuspegi eta desioen zelai esperimental suertatzea izan dela. Gure aintzinate delakoan

¹ John Adams, *The Works of John Adams: Second President of the United States* (Boston: Little, Brown, 1856), or. 310.

edo gure demokrazia aspaldikoan edo gure tragedia paregabearen edo gure terrorismo globalean, fetitxe bihurtu gera bertako ez diren begientzat. Baina hori ez da harrisku handiena; geuk ere neurri handian sinistu egin dugu, eta barneratu, besteen izpilian ikusi dugun gure izaeraren fetitxe hori. Eta horrela konbentziturik jarraitzen dugu oraindik ere Gernikan dagoela, euskaldunak garelako, “munduko jenderik zoriontsuena.” Edo, alderantziz, sinesturik gaude baita ere gurea dela munduko tragediarik handiena. Eta bi ikuspegiak ez daude bata bestearengandik hasiera batean ematen duten bezain urrun. Enigmaz betetako berezitasun aparta izatea gurea, eta munduko tokirik onena ere, garesti irtetzen ari zaigun nartzisismoa da. Gure oinarrizko jatorri amestua hain purua eta betea izaki, gure eguneroko errealitateak ezinbestez ondoa joarazten digu, melankonia eta elegia sendimendua nahitaezko eginaz. Ez al dator Gernikako arbola beretik gure apartekotasuna eta gure malenkonia, gure romantizismoa eta gure tragedia?

Testigantzaren krisia

Errekonozitua dago Gernika izan zela Holokausto zetorrenaren lehen esperimendu eta ataria. Europa bihurtu zen terrorearen etxe izuan, euskaldunen aurkakoa izan zen lehen une genozida, gero juduak, ijitoak, homosexualak eta beste talde marginaletara iritsiko zena. Juduek batik bat jasan izan zuten nazien basakeria eta juduek izan dira testigantzaren garrantzia gaur eguneko zeregin intelektual eta politiko bezala azpimarratu dutenak. Hirurogeitamargarren urtebetzea ospatzen dugun egun hauetan, euskaldunoi zer testigantza dagokigun Gernikaren aurrez galdera nahitaezko bihurtu zaigu.

“Testigantzaren krisia” da alor honetan idazten dutenen gai nagusi bat eta guri euskaldunoi bereziki ikutzen diguna. Zertan datza testiguaren krisia hori? Arazoa ez

da, jakina, zer gairi buruz testigantza eman falta zaigula. Komunikabide elektronikoen garai hauetan, munduko gerra eta gosete guztien irudiak telebista pantailetan ditugularik, gure arazoa da ez dakigula zer egin ikusten dugun hainbesterekin. Testigantza emateko gai garen baino gehiago ikusten dugu. Gehiegizkoa da irudiek aurrean jartzen digutena: zer egin genezake guk? Etsipenez harrapatzen gaitu; hau da testiguaren “krisia”ren alderdi bat. Eta behar bezelako “egia”rekin erantzun behar bagenioke munduan ikusten dugun injustizia eta miseriari, gure ahalmenarentzat gehiegizkoa iruditzen zaigu hori ere. Azken batean, testigu garen, ala ikusle, ala idazle, ala konplize, rol desberdinak nahastu egiten zaizkigu. Inoiz zirko romanoan bezala senti gintezke, beharturik aurrean daukagun espektakulu odoltsua ikustera, eta presentziak bakarrik konplize egiten gaituela sentituz. Edo konplizitate horretatik ihes egin nahirik begiak itxi egiten ditugu aurrean gertatzen ari den basakeria ez ikustearren. Hortik dator “testigantzaren krisia” gure munduan: Darfurren dela, edo Iraken, edo beste hainbeste pobrezia edo izurrite egoeren aurrez, etsipena nagusitzen zaigu eta testigantzaren kulpabilitateari uko egiten diogu.

Krisia horren kasu nabarmenena gas labeetan joan ziren juduena da, jakina: izugarrikeriaren testigua bera desagertuerazi zuten labe hoiek. Krimenak berak desegiten du testigua, hau da moderniares berezitasuna. Baina ez bakarrik Holokaustoarekin. Arma nuklearren eta ingurugiroaren aurkako garai ero hauetan, erakunde eta burokrazien egitura konplexuetan izkutaturik, gizarte osoak parte har dezake orrore atomiko edo ekologikoetan inor testigu izan gabe. Krimenean partaide izaten amaitzen dugu denok baina gizarte bezala ezer gaizki egiten ote dugun konturatu gabe—gurekin zerikusirik ez balu bezala, hortik testigantzaren krisia.

Izan ere, badaukagu mendebal historian ‘gehiegizko’ herentzia bat, gure tradizio erlijioso eta filosofikoari nahitaez loturik dagoena. Hau da Abraham-

engandik datorkigun ondarea— Abraham izanik bai Kristau bai Judu eta bai Musulmanen aita—eta grafikoki laburbiltzen dena parabola ikaragarri hartan: aita, goiko deiari jarraiki, semea hiltzeko prest dago sinesmenaren eromena dela eta. Hau da sakrifizioaren opariaren arrazoi esplikagaitza bai Isaac, bai Kristo, eta bai Sokraterentzat. “Heriotzea eman” deitu dio Derridak opari honi: “Erantzukizuna eta fedearen arteko ezkontza hau litzateke heriotzearen oparia.”² Testigantza emateak hasieratik eta funtsean duen arazo nagusia gure historia erlijioso/politiko ikaragarri honen aurrean zer nolako erantzukizunaren etika bat onartzea da. Alegia, bestearengatik bizitza ematea da maitasunaren eta askatasunaren adierazpen oinarrizko, bizitzaren azken garaipen, mendebal pentsamenduan Platogandik Heidegger-eraino. Nola eman testigantza geure sinesmenak, Abraham-en eran, krimenean partaide izatera bultzatzen gaituenean?

Heriotzaren oparia inon ez da hain derrigorreko eta unibertsal gudan bezainbat. Azken batean, beste mundu batean sinesten badugu edo sinesten ez badugu, erantzukizunaren historiak esanahi du erabakiak hartzera eta ekintzak egitera beharturik gaudela, beren gehiegizkotasunean ezagupen teoriko guztietatik haruntzago dauden erabakiak. Erabakiaren unea paradoxaz betea dago, disidentziaz, ezezagunaz, alderdi hauek izanik erantzukizunaren funtsak. Gernikako kasuan bezala, historia modernoa krimenaren eta sakrifizioaren historia bezala ikustea erabakitzen dugunean aurkitzen gara testiguaren gehiegizkotasun eta porrotarekin. Hau da, gaindiezineko erantzukizunaren aporia gaineratzen zaigu: giza-sakrifizioa da etikaren azken obligazioa eta etikaren azken burla. Munduko gerrateak ikusten ditugula, edo gure arma nuklearren egoera, edo politika internazionalaren injustiziak, edo

² Derrida, 1999:6.

konpongarri diren goseteak behartuta hiltzen direnak, Isaak-en sakrifizioa eguneroko gertakizuna dela konturatzen gara azkenik.

Abrahamentzat “etika tentazioa da”, idazten du Kierkegaard-ek. Gure artean ere burruka harmatua besarkatzera suertatu direnak, heuren erabakiak paradoxaz eta jakin-ezinaz josiak, ondo dakite “etika tentazioa da” esaldiaren esanahia. Etikaren gainez baitago fedea agintzen duena, azken eginbeharra. Etikak aginduko balu, Abrahamek ez luke Jainkoaren esana beteko. Kierkegaard-entzat jeneralitateak regulatzen du etika eta honek porrot egiten du Abrahamen paradoxa bazterrezinaren aurrez. Baina jeneralitate honek ere irresponsabilitatera bultza lezake bere altarean norberaren singularitatea, Isaak-ena, disolbatzen denean. Nola irten impasse honetatik?

Emmanuel Levinas izan da hogeigarren mendeko azken aldiko pentsalari etiko erradikalenetakoa. Baina berak ere, Israelko kasuaz ari zela, etika eta politikaren arteko harremanak mediazio gabeko paradoxatzat jotzen zituen; alegia, arrazoi etikoak bere arauak dituen bezala arrazoi politikoak ere izan ditzakeela bereak, eta elkarren arteko zubia ezinezko izan. Hemen ere “errugabetasunaren tentazioa” nabaria da: etikaren esparruan inola onar ezin daitekeena beste arrazoi baten izenean justifikatuaz amaitzen da. Lyotard-ek predikamendu honi “*a differend*” deitzen dio; hau da, “gatazka kasu bat, bi alderdien artean, zuzentasunez konponezineko dena bi argudioei aplika daitekeen judizio araurik ez dagoelako. Alderdi baten lejitimitateak ez dakar beste alderdiaren lejitimitate eza.” Egoera militar batean, adibidez, gudari edo ekintzaile bat senti daiteke behartua ordenak jarraituaz norbait hiltzera, kasu berdinean beste gudari edo ekintzaile bat ordena ez jarraitzera behartua senti daitekenean. Kasu muturreko hauetan, “mota heterogeneoen artean ez dago judizio-

arau unibertsal bat”.³ Ausentzia hau dago azken batean munduan ikusten dugun hainbeste biolentziaren justifikagarri, izan dadila armamentu nuklearra, edo nazioen arteko gerrak, eta, etxera etorriaz, euskal erresistentzia harmatu setatsua.

Gernika eta Narratiba Historikoak

Itzul gaitezen Gernikak euskal kontzientzian izan duen leku berezira. Narratiba historiko oinarrizkoak izan ditu Gernikak euskal herriaren legedi eta usadioetan, Gaztelako erregeenganako harremanetan, kanpora begira emandako euskal irudian, euskal nazionalismoan, errepublika garaiko autogobernuan, etabar. 1937ko Apirilaren 26ko tragedia behin betirako idatzi zuen Gernikaren izena faszismo europarraren historian; Picassoren kuadroak—hau da, Gernikak—sinbolizatzen du Europako historia kriminala. Bertan euskaldunok biktimak gara. Gernikari zor diogu berriro narratiba historiko oinarrizkoa euskaldunon lekua modernian kokatzeko orduan.

Agian ordua dugu beraz paradoxa politiko gaindiezinen impassea bazter batera utzi eta historia eta narratibaren arteko harremanak azter ditzagun. Alegia, Gernikak historian zehar erakusten diguna zera da: herri bezala ezer izatekotan, narrazio juridiko eta historiko batzuk garela; narrazio hauek gure izatearen funtsa bihurtu direla; narrazio hauek ditugulako, legeak eta euskara barne, autogobernu politiko baten eskubidea defenda dezakegula. Gernikako 1937ko tragedia munduari erakutsi zion euskaldunok jasan dugun zapalkuntza politikoaren bidegabekeria eta ondorioz herri edo nazio bezala zor zaigun nortasunaren lejitimitatea. Hauek *narratibak* dira, eta ez inon idatzita dauden eta euskaldunoi zor zaizkigun eskubide nahitaezkoak, are gutxiago dira euskaldunon garaitza militarrek. Beraz Gernikak behartu behar luken

³ Lyotard, 1988:xi.

galdera hauxe da batik-bat: euskal historia eta euskal narratibaren arteko harremanak zer erakusten digute?

Hegel-en ikuspegia ekarri dezagun arira: “Historia hitzak alderdi objetibu eta subjektibak biltzen ditu, eta adierazten du... *gertatu zena* bezainbat gertatu zenaren *narrazioa*. Bi esanahien bilkura hau ordena goragokoa bezala ikusi behar dugu, ez azaleko gertakizun huts bezala”.⁴ Testigantzaaren teoriarik ezaguna den Shoshana Felman-ek Albert Camus-en obra erabiltzen du historia eta narrazioaren arteko ikuspegi hegeliarra aztertzeko, Camus-etaz esan baitaiteke berak sortu zuela forma literario berri bat, *narratiba testigantza bezala*. Felmanek Holokaustoaren “testigantza krisia” badu gogoan, guk Gernikaren inguruan euskaldunok bizi duguna daukagu — orain 70 urteko biktimak hiltzaile bihurtu garelako munduaren begietan.

Camusen bi nobela aztertuko ditugu, *Izurritea* (1947) eta *Erortzea* (1956). Izurriteak harrapatutako herri bat deskribatzen da lehen nobelan. Ehun bat milioi hilarazten ditu izurriteak, amaiberria zen gerratearen alegoria izaki. Erresistentzia frantzeseko kidea zen Camus; undergroundeko testigantza bezala eta gatazkaren aurrez eginiko interbentzio bezala idatzi zuen bere narrazioa. Nobelaren protagonista medikua da, izurritearen aurka adoretu eta gogoz burrukatzen dena. Testigantza bezala, dokumentu tinkoa da nobela, historia beraren oihartzun arazogabea. Narratzailea ondo informatua eta testigu zuzena izaki, historiak bere kabuz hitzegiten du. Narratiba begi-bistakoa da, gertakizunak literalak dira, eta testiguaren zeregin bakarra “hauxe gertatu zen” esatea da. Hala ere, gauzak hain egiazkoak badira, zergatik idazten du Camus-ek nobela bat eta izurritearen metafora erabili? Halako izurritea “ezinezko” gauza da, mendebaldetik aspaldi desagertutako zerbait, nobelak dio. Alegoriak tentsio bat sortzen du aspaldi desagerturik egon behar zuen zerbait eta

⁴ Aipatua, Felman and Laub, or. 93.

hala ere gertatu egiten denaren artean. Beraz, “Camusen testigantza ez da bakarrik historiaren literalitatearena, bere *realitate-ez*arena baizik”⁵, bizi garen une historikoan halako gauzak gerta daitezkeelaren sinesezingarritasunarena. Holokaustoak eragindako “testigantzaren krisia” hortik dator hain zuzen, biktima/testiguak desagertuak izan zirela eta beraz gertakizunak berak ez zuela testigantzarik ametitzen. Egoera honek kazetaritzatik haruntzago doan testigantza eskatzen du; literaturaren ahalmen imaginatiboak eskatzen ditu, testigantza orokor baten kondena erabatekoa. Irakurlea testigu bihurtzen da literaturak gorputzean historiaren gertakizunak bizitzeko duen ahalmena erabiliaz, mediku protagonistak bere heriotzearen bitartez gertakizunen testigu izan behar duen bezala; era honetan “testigantzaren prozedura berak errotik aldatzen du”⁶ medikuaren nortasuna. Testigantzak gertakizun historiko traketsak erakusten dizkio bere baitan jasaten duen krisia eta transformaketaren bidez. Azken batean medikua, testigantza emateko eskatzen zaionean, jende guztien izenean hitzegingo duen narratzailea bihurtzen da. Bera da norbait “biktimen alderdia deliberatuki hartu duena eta ziurtasun bakarrak bere herrikideekin amankomunean dituen: maitasuna, exilioa, eta sufrimendua. Beraz esan lezake eurak dituzten ardura eta egoera guztiak bere egiten dituela”.⁷

Horrela, hogeigarren mendeko izugarrikerien aurrez, Camusek testigantzaren literatura berri bat asmatzen digu. Elie Wiesel eta besteek *Testigantzaren Haroa* deitzen dioten garaiak beharkizun kultural eta politiko berria esijitzen baitu. Testigantza literarioaren ekintzak gertakizunen kontakizun simple bat ez du aski, Camusen ustetan, baizik eta konpromiso ekintza bat behar du, historia eta kontzientzia narratiboaren forma desberdinak aldatuko dituen. Idazlearen zeregina forma berri

⁵ Felman and Laub, or. 103

⁶ Felman and Laub, or. 109

⁷ Camus, Izurritea, or. 272.

hoiek amaigabe aurkitzea da espazio narratibo horretan parte hartzeko. Camusek idazten duen bezala, “Gaur egun sortzea, harriskutsu sortzea da. Edozein argitalpen ekintza bat da, eta ekintza horrek ezer barkatzen ez duen garaiko grinaren agerian uzten du bat”.⁸ Testigantza ematea azken batean bizirik irautearen eskakizuna da. Baina nobelaren azken unean erotu egin den frankotiratzaile bat agertzen da, testigu egiati batek ere ezin duela guztien izenean hitzegin frogatuz. Holokaustoaren eta terrorismoaren gure garaietan testigantza sendagarri bat posible ote den galdera datorkigu. Galdera honi hurrengo nobelarekin, *Erortzearekin*, erantzungo dio Camusek.

“Berriro esan beharra daukat: gu, bizirik atera ginenok, ez gara benetako lekukoak”, idazten du Primo Levik, nazien kontzentrazio zelaietan egonak. “Itzuli ez diren haiek gertatutakoa kontatzeko edo mutu itzuli direnak... haiek dira... izkutukoak, testigu osoak...”⁹ Testiguaren porrota dugu hemen gaia, bere ezagupenaren balioaz ziur egon ezin denarena. *Erortzearen* tramaren atzean gertakizun adierazkor bat dago: bat-batean Sena hibaira bere burua botatzen duen emakumearen suizidioa ikusten du narratzaileak ustekabea. *Izurritean* ez bezala, non narratzaileak zuzenean esperimendatzen duen adoretu burukatuko duen gaitza, *Erortzean* narratzaileak gertakizun baten hutsegitea bizi du, aurpegiz aurpegiko ez den zerbait, eta lekukoa *isiltasunera* behartzen duena. *Erortzean* bestearen heriotzeak ez du esanahirik eta testiguak ez du komunitatea ikusitakoaren lekuko egiten.

“*Izurriteak* ez bezala”, dio Felmanek, “*Erortzeak* historia garaikideko desastreen erroak arakatzen ditu, ez etsaien gaizkiletasunean (izurritea ekarri duen kanpoko birusen bat), baizik eta, gutxiago espero zitekeena, lagunaren saldukerian.”¹⁰

⁸ Aipatua, Felman and Laub, or. 115.

⁹ Primo Levi, *The Drowned and the Saved* (New York: Vintage Books, 1989), or. 83-84.

¹⁰ Felman and Laub, or. 171.

Zergatik hartzen du Camusek jarrera hau? Ezaguna da Sartre eta Camusen artean hausketa egon zela honek *Gizon Errebolataria* (1951) argitaratu ondoren, non Camusek marxismoa eta estalinismoa bereziki kondenatu zituen, eta Sartren aldizkari *Les Temps modernes*-ean kritika txarra jaso zuen. Historiaren zeregina zein den eta nola izan historiaren lekuko, hortan zetzan eztabaida. Sartrearen ikuspegian, totalizazio dialektikoaren prozedurak esplikatzen du Stalinen agindua. Camusen ustetan, aldiz, historizismoaren joera totalitarioa bere kontrako ideologia, idealismo anti-historizista, bezain itsua da. Errealitatea ukatuz bakarrik juzga lezake batek historia bere baitan dagoen totalitatea dela. Batek ez luke sinets behar “historia eta ez beste ezer” dagoenik, ez eta ere “historiatik ezer” ez dagoenik. Camusen ondorioa: “Inpotentzia mota bi daude: Onaren ezintasuna eta Txarraren ezintasuna”.¹¹ Anti-historizismo ezkorraz salatu zuen Sartrek Camus; lehenagoko testigantza paregabea, *Izurriteakoa*, gogorazi zion, hau da, edonoren esku dagoen “salbazio pertsonal”aren sendakuntza. Baina salbazioaren ideologia horixe da *Erortzeak* zalantzan jartzen duena, eta horrekin bat datorren testigantzaren autoritatea bera.

“Izurritea” denuntziatu zuen Camus lekuko heroiko bat zen, taldearen salbazioaren promesa berresten zuena. Baina suizidioan finkaturiko Camus hura hutsaren eta galtzapenaren lekuko bihurtu zen. Hau ez zen izurritearen ondoren etortzear zegoen erredentzioaren historiaren ospatzailea, hasiera erabat berria bigarren gerrate mundialaren ondoren. Sartrek uste du Camus iraganeko gizona dela aurrerapena ikusi nahi ez duelako, sendakuntzaren lekuko izan nahi ez duelako. Camusek uste du, aldiz, Sartre bizi dela iraganean, bere marxismo profetikoari jarraiki Soviet Batasuneko izugarrikerien testigu izan nahi ez duelako; orainari uko eginaz, izurritearen jarraipena bultzatzen du. Camusen iritzian, komunismo sovietarra

¹¹ Aipatua, Felman and Laub, or. 174.

hogeigarren mendeko iraultzarik garrantzitsuena izanik ere, berak ekarritako kontzentrazio zelaien terrorea denunziatu beharra dago.

“Beti daude arrazoiak gizon bat hiltzeko”, dio *Erortzeako* narratzaileak. Naziek “azken soluzioa” zela eta egin zutena. Baina honen errepikapena, zer besterik litzateke salbazio ideologia hori, utopia sozialista baten izenean heriotzea razionalizatzen zuen jarrera? Beraz, “Camus orain konturatzen da *Izurriteari* bultzada eman zion gune moral huraxe—testigantzaeko komunitatea eraikitzea—horixe bera zela nolabait distortsio bat, engainatze historiko bat”.¹² Sartre eta bere lagunekin sortu zuen “aliantza” bera ankaz gora joaten da eta Camus konturatzen da testiguak ez duela aliaturik. Benetako lekukoa azkenean arazoz josia dago, bere ezjakintasun eta isiltasunetik datozkionak. Sartrek Camus akusatzen duenean historiari infernutik “begiratu” besterik ez diola egiten, “historia egin” egin beharrean, Camusen erantzuna: Sartrek benetan “egiten” duena “isiltasuna egitea” da, estalinismoaren izugarrikerien aurrez bestalde begira gelditzen baita.

Entzungortasun eta mututasun sistematikoak egin zituen posible Juduen ezabatzea blitzen zuten kontzentrazio zelaiak. Gerrako partaide guztiek ezagutzen zuten sekretu honen inguruan gertatu zen genozidioa. Gaur egun ere Guantanamo eta presondegi sare sekretu bat dagoela ondo ezagunak dira. Camusen “infernuko ikuspegia” gainditua al dago? Gertakizun hoiek posible izan ziren isiltasun sistematikoa gorde izan zelako. Eta gaur egun Guantanamo eta presondegi sare izkutu hori toleratzen badira, ez al dira hauek nahiko argudio testiguaren porrota aldarrikatzeko, “isiltasuna eginaz”, eta denok nolabait kartzelarien konplize izateko? Euskal Herria ere honela definitu zuen norbaitek: bi mila pertsona bizkarzainekin, eta beste bi milioi bi mila hoiek ikusten ez dituztenak.

¹² Felman aned Laub, or. 181.

Felman ondorio honetara iristen da: *Izurritean* ematen den testigantza erabatekoak “huts egiten du hain zuzen testiguaren porrot erradikal baten desastrearen berezitasuna kontutan hartzen ez dakielako, lekukoak eskuraezin duen gertakizuna, hain zuzen gertakizunaren izaera katastrofiko eta inoiz ez bezalakoa *testigua bera desagertzea* delako”.¹³ Itziarko herriari buruz idatzi nuen etnografian, herriko emakumeak autobusean erosketetatik zetoze, bi ETAkidek beren aurrean tirokatu eta hil egin zuten gidaria; herrira ekarri zutuztenean, “baina hori nola leike?” galdetzen zuten behin eta berriro beren izua eraman ezinik. Hilketa bera zer gertakizun mota zen, zer esanahia zuen, zer egin edo esan behar zuten, hitz batez, zer nolako lekukotatuna zegokion galdetzen zuten, erantzunik gabeko galdera errepikatuz, “baina hori nola leike?” Galdera horrek beste galderak dakartza katean: nola egiten gaitu konplize geure begi aurrean ikusten dugunak, zer nolako erantzukizuna daukagu, nola izan gintezke gertatukoaren lekuko?

Erortzea nobelan lapurreta kriptiko bat gertatzen da, *Epaile Zuzenak* izena duen kuadroarena. Portaera moral bertutetsutik hitzegiten dutenen alegoria da, *Izurriteako* testigu zuzenaren kasuan bezala zer gertatzen ari denaren ikuspegi garbia duenarena. Norberarentzat errugabetasun osoa bereganatzen duen lekukoaren konplazentzia desenmaskaratu nahi du *Erortzeak*. Zeren lekukoa egiazki konturatzen bada zer nolatan bizi den bera ere krimenaren historia modernoan, Holokaustoa barne, eta euskaldunon kasuan ETA barne, ez dago inozentzia osorako lekurik.

“Errugabetasunak gauza bat bakarrik adieraz lezake: norberak krimenean duen partehartzeaz ez konturatzea”.¹⁴ Camusek Dotoyeskiren oihartzunak ditu: “Ezin dugu baieztatu inoren errugabetasuna, baina bai esan genezake ziurtasunez denok garela errudun. Gizon bakoitza da beste guztien krimenen testigu—hori da nere fedea eta

¹³ Felman and Laub, or. 194.

¹⁴ Felmann and Laub, or. 196.

itsaropena”.¹⁵ Inor erabat errugabe ez garenon ikuspegi honetan, geure errugabetasunak kulpable sentiarazten gaitu. Kulpa sentitzea ez da berez errugabetasunari kontrajartzeko zerbaite, esnatzeko prozedura baizik.

Krimena eta testigantza tartean bereizketa zorrotza zegoen *Izurritean*. Baina *Erortzean* lekukoa abokatua da, arazo baten bi alderdi kontrajarriak beragana litzakena eta biktima errepresentatu besterik ez duena egiten. “Eta ez ahaztu, gainera,” dio Camusek, “*gaur egunean juezak, akusatuak eta testiguak trukatu egiten direla.*” Hau da euskaldunoi gertatu zaiguna ere: lehen biktima ginanok orain borrero bihurtu garela. Agresio nazi/frankista jasan ondoren geu gara orain ETAREN bitartez frankismoaren oihartzunak historian zehar luzatzen ari garenak. Gernika da trukaketa honen lekuko. Lehenago 1946 urtean Camusek idatzia zuen beste lan bat, *Ez biktima ezta ere borrero*; bertan zioen: “Pasa ditugun urte hauek zerbaite hil dute gure baitan. Zerbaite hori pertsonak lehen beragan zuen konfidantza besterik ez da, sinesarazten zioena bestearengandik giza-erreakzio bat jasoko zuela hitzegiten bazion gizatasunaren hizkuntza amankomunean”.¹⁶ Auschwitzen ondoren, Gernika ondoren, testigantzaren krisiak behartzen du narratiba ezintasun hori idaztera. Eta Gernika ondoren ETA nahitaez azaltzen denean, Gernika beraren sinbolu historiko eta tragikoa iraultzaren izenean bere bizkar harturik, testigantzaren krisia areagotzen joan zaigu gaur arte, jasanezineko bihurtu zaigun arte, euskaldunon artean gizatasun amankomun baten konfiantza galtzeraino— munduaren begietan Gernikak sinbolizatzen duen faszismoaren basakeria geure aurka aldatzeraino.

Izan ere, gure impasse politikoak eta gure biolentzia politikoaren konponezinak adierazten du gugan zerbaite hila dela. Camusek idatzi zuen iritzi hori

¹⁵ Camus, p. 110.

¹⁶ Albert Camus, *Neither Victims Nor Executioners* (Philadelphia: New Society Publishers, 1986; translator Dwight Macdonald), pp. 27-28.

ez bakarrik nazien heriotze zelaiengatik, baita ere Hiroshima, Nagasaki eta hiri europearren aurkako bi aldetako erasoengatik. Gerrak azaldu zuen ez bakarrik hilketa genozidak posible zirela, baita ere kausa zuzen baten izenean egin zitekeen biolentzia masiboa. Gerra justuaren tradizioarekin hautsi egin zuen Camusek, aro nuklearrean ezinezko den pentsamoldea izaki, gerraren nozioa bera zentzu klasikoan obsoletoa gertatzen delarik. Camusek gorroto zuen batez ere Estatu abstraktoaren zereginari heriotzea lejitimatzeko orduan eta seguritate nazionalen izenean altxatzen den teknologiaren mehatxuari. Bizi gara, idazten du, “abstrakziozko mundu batean, burokrazia eta makinena, ideia absolutu eta mesianismo gordinena. Ito egiten gara, euren makinak edo euren ideiak erabat zuzenak direla pentsatzen dutenen artean.”¹⁷ Teknologia ez du bakarrik hiltzeko ahalmena areagotzen, era berean lekukotasunaren zeregina galeratzen du borroroek bere ekintzetatik urruntzen baititu eta. “Aliatuen eskudroi bonba-botatzaileek hiri alemaniarren etxe-blokeak bana banan deusezta ditzakete eta gero beren klubetara itzuli zelebratzera. Guar egun, ehunda mila injinerik destrukzio masiboko armak diseinatu eta produzitzen dituzte, halanola Trident sumarinoa... Lan hau aire akondizionaturiko ofizinen patxadan egiten da, non armak probatzen diren, gerra jokoetan aritu, eta hilketa masiboak konputadora pantailetan kalkulatu”.¹⁸ Burokraziak egiten ditu erabakiak, beraz indibiduoek aske dira arma hoiengandik ondorio posibleen erantzukizuna ukatzeko. Hondamen masiboa planifika leike *testigurik gabe* eta denok errugabe sentituz. Honela dio Camusek: denok gara errudun.

Baina Camus ez da pazifista arrunta. “Ni moduko jendeak ez dugu bilatzen hilketarik egongo ez den mundurik... hilketak lejitimitaterik izango ez duena

¹⁷ Camus, or. 29.

¹⁸ R. Scott Kennedy and Peter Klotz-Chamberlin, “An Ethic Superior to Murder.” In Camus, *Neither Victims nor Executioners*, pp. 9.

baizik”.¹⁹ Lagunek zioten utopian bizi zela. Ez zela utopia eta errealitatearen arteko burruka erantzuten zuen berak, baizik eta zentzu komuna zuen utopia eta amesgaiztoa zen fantasiaz mantendutako utopiaren artekoa; amesgaizto zen, adibidez, nuklear aroan sinestea xedeak justifika lezakela edozein bide. Justifikazio hoiek gerraren errealitateak kentzea gehiegizko al da bizi garen munduan? galdetzen zuen Camusek.

Bere argumentu nagusia, gu ere egun bete-betean harrapatzen gaituena, hau zen: “Nahi duzu ala ez duzu nahi, zuzenki ala zeharka, hila edo erasotua izan zaitezten? Nahi duzu ala ez duzu nahi, zuzenki ala zeharka, norbait hiltzea ala erasotzea?” Bi galdera hauei Ez diotenek automatikoki konprometatzen dira zenbait ondorioekin, arazoak planteiatzeko moduak aldaerazi behar dizkietenak”.²⁰ Jarrera honen ondorioa garbia da: biktima izan nahi ez duena ezin da izan borrero ere, justifika ezineko egingo zaiolarik inoren hilketa. Hau utopikoa da, jakina, armada profesional batek edo talde armaturen batek hilketak gure izenean egiten seguruenik jarraituko dituelako.

Estatu Batuen ikuspegitik, “terrorismo” delakoaren diskurtsoak permititzen du gerra justuaren azken bariazio bat. Terroristaren figurak, inolako lege edo moralitate edo lejitimazio gabe ikusia denak, bultzatzen du gerraren eta heriotzearen justifikazioa. Sasoi batean “Hitler” zen bezala, gaur “terrorista” da gaizkilearen esanahia laburbiltzen duena. Diskurtso hau engainagarria dela gauza nabaria da eta argudia genezake testigantza krisiaren alderdi bat dela diskurtso honen izenean Iraken gertatzen ari den hondamendia.

Baina gu terrorismo globalaren bestaldean aurkitzen garelarik, sujetu hori ez urruneko figura demoniakoa baizik eta hauzoan ezagutu dugun biztanlea izanik, hasierako galderara itzultzen gara: zein dira euskal historia eta euskal narratibaren

¹⁹ Camus, *Neither*, or. 34.

²⁰ Camus, *Neither*, or. 30

arteko harremanak? Nola bizi dugu testigantzaren krisia? Izan ere, Gernikak sortu dituen narratibak ez dira gure izate historikoaren jantzi hutsak, gure izaera beraren alderdi oinarrizkoak ere badira. Gernikaren narratiba juridiko eta politikoak, nazionalismoaren helburuak eta estatu-ezaren ausentziak, diskurtso erromatiko eta tragikoak, Picassoren koadroa, hauxe izan da laburbilduta euskal historia eta euskal izatea. Munduaren begietan narratiba hauetxek gara, narratiba hauetxek egin gaituzte garena. Ideologia unibertsal batzuek moldatu gaituzte—kristautasuna, sozialismoa, nazionalismoa, kapitalismoa—; disziplina akademiko ezagunak idatzi gaituzte— Hizkuntzalaritza, Historia, Politika, Antropologia—; zenbait kreazio artistikoen narratiba konplexuek—literatura, artegintza, zinema—osatu gaituzte euskaldun bezala. Eta egin gaituzte bai Euskal Herrian eta bai Euskal Herritik urrun diasporako hainbeste nazioetan, non euskal sorterrian baino euskal jatorriko gende gehiago bizi baigara. Gure izaeraren eta historiaren “esentzia” narratiba eta harreman sare hauek dira bete-betean.

Zer gertatu zaigu Gernikako tragedian herri bezala biktima izan ginanoi? Terrorismoak kolonizatu egin duela gure narratiba bai etxean eta areago esparru internazionallean. Hau da gaur gure historia nagusia munduaren begietan. Hementxe datza euskal testigantzaren krisia: ez dugula ikuspegi intelektual eta borondate politiko aski katastrofe honetatik gure narratiba erreskatatzeko. Gernika da gure porrotaren testigu. Ez gara “onaren inpotentzia” eta “gaiztoaren inpotentzia”tik irtetzeko gai. Hau da, ez gara gai ikusteko denok daukagula, again ez errua, baina bai erantzukizuna desastre honen aurrean.

Hannah Arendt-ek bereiztu zituen erru eta erantzukizun kolektiboa. Norberak parte hartu ez duen gauzetaz ere bat izan daiteke arduradun; errudunak gara geuk aktiboki parte hartu dugun gauzetan bakarrik. Erantzukizun kolektibo hori da

euskaldun gehienok onartzen ez duguna, beti besteari errua botatzen diogularik, eta hau da testigantzaaren krisiaren oinarritzko alderdi bat. Oso ausartak gara bestearen errua kondenatzen, baina ez hain ausartak euskaldun bezala denok konpartitzen dugula erantzukizun kolektiboa errekonozitzen. Ez da erantzukizun legala, edo etikoa ere, baina bai erantzukizun historiko eta politikoa. Euskaldunok, inon horrelakorik sentitzekotan, hementxe Gernikan sumatzen dugu gure izaera kolektiboari zer zor diogun: ze Gernikan defendatu ziren lege eta beste erreinuenganako harremanetatik benefiziatu ginen euskaldunok, Gernikako eraso nazi/faszista ere azken batean euskalduna izateagatik gertatu zen bezala. Gernikak suposatzen duen identitate juridiko, antropologiko, hizkuntzazko eta politikoaren alderdi batekoak eta bestekoak, erromatikoak eta tragikoak, baikorrak eta paradojikoak, herri bezela denok gaude herentzia hortan inplikatuak eta denok gara horren arduradun.

Testigantza hori krisian dago, bai aspaldiko memoriarenganako, bai 1937an gertatukoarenanako, bai azken urte hauetako gatazkarenganako. Gernikak sinbolizatzen duen historia politikoari lekukotasuna uko egiten dion euskaldun asko dago: gure euskera, erakunde tradizional, ohitura, memoria zaharrak ez duela balio intrinsikorik uste dutenak eta beraz ez dutela merezi gure errespetorik. Ez diote Gernikak errepresentatzen duen historia, sinbolu eta herentziari testigantzarik eskaini nahi. Baina bada bestaldekorik ere: nazionalistek prest egon daitezke euskal iragana berenganatzeko, argi eta itzal guztiekin, baina herentzia hori modu fetitxizatu eta esentzialista batean harturik, behin-betikoan, eksklusibistan. Geure jatorriaren esklabu garenean, eta ez haren jaun, natibismoa sakralizatu egiten dugunean, eta ez problematizatu eta eraberritu, ez gara gure tradizioaren benetako testigu.

1937ko tragediarenganako memorian ere nabari genezake testigantzaaren krisia. Faszismoaren aurkako testigantza benetakoa faszismoaren forma guztiei uko

egitea, zer besterik litzateke. Euskal Herriak partehartze tinkoa izan zuen frankismoa gainditu eta askatasun demokratikoak berreskuratzen. Baina demokrazia horren mugak nabariegia dira, bai Estatuaren konportaeran bai euskal indarren arteko harremanetan, eta batik bat burruka armatuak azken urteotan agertu dituen ekintza faszistetan eta gizarte gehingoaren isiltasunezko konplizitatean. Ez da erraza aitortzea baina munduaren aurrean euskaldunok azaltzen gara, ez Gernikako biktima bezala, terrorismoaren agente baizik.

Eta azken puntu honek garamatza euskal testigantza krisia larrienera. Gure impasse politikoa konponezina bihurtu zaigula dirudi. Arazoaren alderdi nagusi bat Estatuaren eta Euskal Herri Herkidegoaren arteko antagonismoa da. Baina hain garrantziko dirudi euskal indar politiko desberdinen arteko ezinkonponduak, nazionalisten artekoak barne: honek adierazten du Gernikako denon herentzia ez dela gai euskaldunok, diferentzia guztiei eutsiz, geure artean norma politiko oinarrizko bat finkatzeko. Iraganen Gernikan arbola bakarraren sinbolua euskal interesa politiko desberdinak biltzeko gai zen. Gaur ez da. Zergatik? Gure narratiba historiko eta politikoen testigantza krisian dagoelako. Ez dakigulako, aurreko belaunaldiek bezala, mendean mendeko egoera bai euskal gizartekoa bai nazio artekoa aztertzen eta hauetara egokitzen.

Zer printzipiok lagundu zien gure aurreko euskaldunei beren mundura egokitzen, zentzu komunez jokatzeko? Errealismo politikoak erakutsi zien inguruko herri indartsuagoekin harremanak nola eramane. Baina nik esango nuke funtsean talde bezala pentsatzen zekitelako. Guk gaur baino hobekiago, pentsatu egiten zuten zer komeni zitzaieken bizi zireneko munduan. Ez zuten seguruenik filosofiaren eta zientzia politikoaren sistemen arabera pentsatzen, baina zentzu komunaren filosofia praktikan jartzen zekiten. Ulertzen zuten Sokratesen printzipio lehena: “hobe da

besteek gaitz egin dezaizutela zuri, zeuk besteei baino”. Hau Sokratesek kristautasun guztiak baino lehenago formulatua da ez eta ez da moralismo merketzat hartu behar. Pentsamendu zehatz eta librearen ondorioa zen formula hori; bere azken arrazoia hauxe besterik ez zen: geure buruarekin bizi behar dugunez, hobe dugu hiltzaile ez izan, horrela ez baitgara egongo behartuak hiltzaile batekin bizitzera. Gure aurrekoek ikus zezaketen Sokratesen pentsamenduaren zuhurtzia oinarrizkoa. Zentzu honetan, Gernikaren herentzia zentzu komunaren demokrazia da. Zentzu komun honek esijitzen du, ez moralismoa, pentsamendu egokia baizik. Euskal testigantzaaren krisiak iturri nagusiak hoietzek ditu: gaur eguneroko egokia den pentsamendu berria sortzeko gaitasuna falta zaigu, eta pentsamendu horrek eskatzen diguna egiteko borondate politikoa galdu dugu. Pentsamendu berri horri sortu eta zabaldu ezaren porrotaren lehen arduradunak unibertsitateko munduko ikerlari eta intelektualak gara.

Amaitzeko, lehen aipatu bezala, Gernika da euskaldunon errepresentazio internazionalen trukaketa mingarrien lekuko. George Speer bezalako kazetariei esker, euskaldunon portaera politikoak mirestuak izan ziren munduan zehar, oraindik orain Nicholas Rankin-ek suhar gogoarazi duen bezala.²¹ Lehen euskal narratiba nagusia faszismoaren biktima izatea bazen, eta faszismoaren aurka lejitimitate historikoa eta politikoa zuen herri bat izatea, gaur egun euskal narratiba nagusia terrorismoa da. Faszismoaren biktima izatetik borrarero terrorista izatera pasatu da gure irudi internazionala, esan beharra dago. Gernika da trukaketa honen lekuko. Gernikan bihurtu baitgingen euskaldunok faszismoaren biktima. Gernikak munduarentzat faszismoaren basakeria militarra sinbolizatzen badu, euskaldunontzat faszismoaren biktimenganako lekukotasuna sinbolizatzen du. Gernikan ikasi genduelako zer den faszismoaren biktima izatea, Gernikak gogorazi behar digu euskaldunoi geu ezin

²¹ Nicholas Rankin, *Telegram from Guernica: The Extraordinary Life of George Steer, War Correspondent* (London: Faber and Faber, 2003).

garela inoiz faszismoan erori. Iparragirrentzat Gernikako arbola “arbola santua” bazen, 1937ko Apirilaren 26 ondoren Gernikako arbola krimen politikoaren aurkako testigu amorrutz betea da. Euskaldunon izenean krimen politkoa praktikatzearen aurkako ahots basatia da Gernikako arbola, hementxe Gernikaren bihotzean krimen modernoaren arrazoigabakeria, zibilizazio eta zientziaren mantupean, lehen aldiz ozen desenmaskaratu baizen. Gernika da gure memoria hoberenaren gure arbola santua, Gernika da Picassoren garraisia, Gernika da nazismoaren ta faszismoaren basakeria biluz utzi zuena, Gernika guda moderno nuklearizatuaren erokeriari ezetz diona, baina Gernika da baita ere euskaldunok lotsarazten gaituena, bere esanahi historikoaren pare ez gaudelako, bere sinbolismo sakratuari eusteko adorea falta izan zaigulako, bere testigantzaaren krisiaz konturatzen ez garelako. Gernikaren sinbolismo guztia dugu beharrezko egoera honetatik irten gaitzen.